



kotarro

Puy eguna 2013

MAIATZAK 25, LARUNBATA

08.00. Dianak gaitero eta txistulariekin.

08.30. Dianak Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita.

10.30. Irteera Udaletxetik, Lizarrako Udal-korporazioa, Segizio Ofizialarekin lagunduta.

11.00. Puyko Amabirjinaren Basilikan, Meza.

12:00etatik aurrera, goizez eta arratsalde. Kalejira hirian zehar Alkaburua txarangarekin, honako talde hauek lagunduta: Getxoko Txopolis fanfarrea, Uribeko Merindadea txistulariak eta Getxoko Bizkaiko Dultzaineroak gaiteroak.

12.00. Koroatze plaza. Suziria "V. Gazteriaren Festa" iragartzeko. Jarraian japoniar-lehergailuak.

12.30-15.00. Kalejira Jurramendi txarangarekin.

13.00. Udaletxetik, dantzari-desfilearen irteera.

13.15. Foruen plaza, "Larrain Dantzaren XIII. Eguna", Estella-Lizarrako Musika Banda eta Erraldoi eta Buru Handien Konpartsarekin.

14.30. Santiago plaza. Herri Bazkaria "IV. Txerrikumegorespen Eguna".

15.00. Foruen plaza, herri-bazkaria "IV. Gazteriaren Eguna".

17.00. Santiago plaza. Musikaldia: "Chuchín Ibañez".

17.00. Koroatze plaza. Ekitaldia haurrentzat.

17,45. Irteera Zezen plazarantz, Jurramendi txarangarekin.

18.00. Zezen plaza. Bigantxak askatuko dira.

20.00. LIZARRAN KANTUZ OSKORRIrekin. Santiago plazan (eguraldi txarrarekin: Lizarra Ikastolan)

21.00-22.00. Foruen plaza, gaita-musika.

22.00. Foruen plaza, zezensuzkoa.

23.00-03.00. Foruen plaza, disko-dantza.

01.30. Foruen plaza. Larrai-dantza "Deierri" akademiako gaiteroekin.


Lizarran kantuz

oskorri^{rekin}

Puy Egunean

Maiatzaren 25ean • 8tan Santiago Plazan

*Eguraldi txarrarekin: Lizarra Ikastolan



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



LIZARRAN KANTUZ BEREZIA OSKORRIREKIN

Sei urte igaro dira dagoeneko lehen Lizarran Kantuz jaia ospatu genuenetik, 60 alditan atera gara kalera euskal kanturik ederrenak eskeintzera. Datorren larunbatean, egun seinalatua izaki, Oskorriren laguntzaz burutuko dugu maiatzeko Lizarran Kantuz-a.

Zatozte!! Aparta izanen da!!

kotarro

24. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behe, ezk.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 800



24
zbk.

KOTARRO

2013ko maiatza

debaldeko alea

Garean-Jarduerak

TXOKOLIPUINAK

Maiatzak 29
Arratsaldeko 18:00etan
La Bota elkartean

BERTSO ESKOLA

Asteazkenero, 19:00etan
Gareanen egoitzan

IRAKURLE KLUBA

Ekainak 6

**Jakobian eraikina,
Alaa Al Aswani**

Xabier Olarra itzultzailearekin solasaldia
Arratsaldeko 19.30ean
Lizarrako liburutegian

LIZARRAN KANTUZ

Maiatzak 25

OSKORRIrekin**"The pub ibiltaria"**

Arratsaldeko 20:00etan

Santiago plazan

(eguraldi txarrarekin: Lizarra Ikastolan)

Ekainak 29

Arratsaldeko 20:00etan

Baxenabarra kaletik abiatuta

**LITERATUR EMANALDIA
MARRAZKIAK ETA MUSIKA**

"Euslandia"

Maiatzak 23, 19:30ean

Lizarrako liburutegian

**PSIKOMOTRIZITATEA
ETA KIROL-ANITZA**

4 eta 5 urteko taldea

Ortziralero 17:15-18:15

Lizarreria Kiroldegian



Arauk lagun? Euskararen Udal Ordenantzak

Aspaldi hezurmamitzen hasitako arautegi honek etapa bete du udalbatzan onestearekin batera. Zer dira Ordenantzak, baina?, zertarako balio dute? Eta, batez ere, zer aldatuko da Lizarrako euskaldunontzat?

Udalera lagundu, Udalean lagundu, Udala lagundu; euskaldunak Udalera erakarri, Udalean hiritarra euskaldun izateari ez uzteko erraztasunak ezarri eta Udala lagundu oraingo eta etorkizuneko hiritargoa zuzen artatzeko.

Asmo onak ditu, bai, Estella-Lizarrako Udalak onartu berri dituen Euskararen Ordenantzak. Ibilbide luzea izan du ere arautegi honek baina, eta zer dira Ordenantzak?, zertarako balio dute? Eta, batez ere, zer aldatuko da Lizarrako euskaldunontzat?

*Lizarrako Udalak
euskararen
ordenantzak
onartu ditu...*

Maiatzaren 2ko ohiko udalbatzan Lizarrako Udalak euskararen ordenantzak onartu ditu. Bi proposamen eztabaidatu eta bozkatu dira: batetik UPN-k aurkeztutako euskararen ordenantza; eta bestetik, oposizioko alderdiek aurkeztutakoa. Oposizioko proposamena onartu da gehiengoaren bozkaz.

Zer dira ordenantzak?

Udal ordenantzak udalak sortzen dituen arauak dira, lege zabalagoen garapen lokalak. Zinegotzien gehiengoak onartu





behar ditu eta argitara eman ondoren bete beharrekoak dira. Lizarran oraintsu onartu diren euskararen ordenantzak Espainiar Konstituzioaren, Nafarroako “ley del vascuence” delakoaren eta Europako zenbait arauen esanetan oinarritzen dira.

Zer dio “Ley del vascuence” delakoak?

1986ko lege horrek Nafarroa hiru eskualdeetan banatzen du hizkuntza eskubideei dagokienez: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Lizarra eremu mistoan kokatzen duenez ikus dezagun zer dioen legeak eremu mistoan euskararen erabilpenari buruz (erdarazko jatorrizko bertsioa jarriko dugu legez balio duena baita):

CAPÍTULO III. Del uso en la zona mixta
Artículo 17

Todos los ciudadanos tienen derecho a usar tanto el vascuence como el castellano para dirigirse a las Administraciones Públicas de Navarra

Para garantizar el ejercicio de este derecho, dichas Administraciones podrán:

- a) Especificar en la oferta pública de empleo de cada año, las plazas para acceder a las cuales sea preceptivo el conocimiento del vascuence.
- b) Valorar como mérito el conocimiento del vascuence en las convocatorias para el acceso a las demás plazas.

Legea ez da zehaztasunetan sartzen, printzipio orokorrak aipatzen ditu, eta udal bakoitzak zehaztu behar ditu bere ohiko prozedurak eta erabaki praktikoak. Lizarran baino lehenago beste herri batzuetan eginik zituzten antzeko ordenantzak. Ondoko taulan agertzen dira Lizarrarekin antzekotasunik handiena duten herriak: 2.000/22.000 biztanle artean eta eremu mistoan daude denak. Berez, baldintza horiek betetzen dituzten guztiak dituzte ordenantzak. Zerrendan ageri ez diren Aranguren eta Zizur Txikia ere orain ari dira ordenatza prestaketan.

19. taula: Udal legegintzaldiak eta Euskararen Ordenantzak

1997-2003	2003-2007	2007-2011	2011-2015
Iruñea (1997)	Uharte (2004)	Berriozar (2008)	Eguesibar (2012)
Burlata (1997)	Berriobeiti (2005)	Zizur Nagusia (2008)	
Antsoain (2000)	Iruñea (2005)*	Orkoien (2009)	
Barañain (2000)		Agoitz (2009)**	
Agoitz (2002)		Gares (2010)	
		Atarrabia (2011)	

*Iruñean, UPN-k 2005ean Euskararen Ordenantza aldatu zuen.

**Agoitzean, udalbatzak 2002an onartu bazuen ere, 2009an sartu zen indarrean.

Lizarrako euskararen ordenantzen laburpena

Ordenantza hauek 9 kapitulu eta 53 artikulua dituzte, zenbait eranskinekin batera, eta zehaztasunak ematen ditu euskararen erabilpenaz eta euskaldunen eskubideez.

Jatetxea

V lante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695



LIZARRA

**Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINZA**

Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com






Kapituluz kapitulu eta artikuluz artikulatu hainbat xehetasun dago ordenantzetan, horietako batzuk azaltzen dira hemen:

Hasieran hiritarren hizkuntza eskubideak aipatzen dira, herritarrek udalarekin erabili nahi duten hizkuntza harremana bermatuz. Jarraian administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera idatziaren gaineko araudia zehazten du. Hurrengo artikuluetan Udalaren kanpo irudian euskara noraino agertuko den atalik atal azaltzen du, adibidez: "ekitaldi publikoetan, hala nola Udal prentsaurre-koetan, hitzaldietan, aurkezpenetan, harrera-ekitaldietan, omenaldietan eta abar. euskararen erabilera bermatuko da". Jarraian dagoen zerrendan ikus daiteke zein zehaztasun duen euskararen ordenantzak:

- a) Bandoak, ediktuak, kartelak, programak, udal aldizkaria eta informazio plakak.
- b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, idazpuruak eta antzeko elementuak.
- c) Eraikin, karrika eta eremu publikoetako errotiluak.
- d) Udalaren egoitza eta bulegoetako errotiluak, Udalaren ibilgailuetakoak, eta langileen arropa eta uniformeetakoak.
- e) Interes turistikoko, zerbitzuen kontroleko eta trafikoko seinaleak, etzanak izan ala zutikakoak. Bai behin behinekoak zein behin betikoak.
- f) Udalak administrazio prozedura guztien gaineko argibideak eman beharrez herritarren eskura jartzen dituen agiri eta ereduak.
- g) Posta elektronikoak, SMSak, WEB orriak, BLOG-ak, sare sozialak eta antzekoak.
- h) Beste edozein baliabide edo formatu, Udalaren irudia, kanpoko edo instituzionala, adierazteko erabiltzen dena.

Udalak ezezik Udalaren diru-laguntza jasotzen duten elkarteak, klubak, fundazioak, kolektiboak eta taldeak ere

eskatuko zaizkie horrelako bermeak.

Lizarrako euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko Udalaren plantillan zehaztuko da zer lanpostutan egon behar diren langile euskaldunak, jendearekin harreman gehiago izateagatik. Horrez gain jendearekin harreman zuzenik ez dagoenetan ere euskara baloratzeko portzentajea zehazten da. Langile berriak kontratatzean kontuan hartu beharreko neurriak dira.

Udalak Euskaltzaindiari eskatuko dizkio argibideak kale, auzo eta hiriko bestelako elementuen izendegirako nahiz beste edozein zalantzatarako.

Laburpena amaiteko aipatu behar da herritarrek ere izan dezaketela garrantzia euskalgintzako eragileek horretarako sortuko den Kontseiluan parte hartzen badute.

Hasierako urratsa

Ordenantzen irakurketa hutsari esker Lizarrako euskaldunek lehen baino argiago izango dute udaletxera joandakoan zer eskubide dituzten, atal ezberdinetan dioena betez gero udalaren agerpen ofizialetan igarriko diote aldaketari eta Lizarrako esparru guztietan zabalduko da euskararen presentzia.

Neurri, arau, eginkizun eta betebeharrak guzti horiek noiz, nola eta nork egiteko epeak ordenantzetan bertan aipatzen dira. Hala ere legeak eragina izan dezan horretarako bitartekoak eta baliabideak jartzeko borondatea beharko da, kontuan hartu behar da oposizioko alderdien proposamena onartu dela eta gobernuan dagoenak aurka bozkatu duela. Ordenantzak egin dituztenen buruan dauden ideiak eta paper ofizialean idatzitako hitzak besterik ez dira praktikan aplikatzen diren arte.

Beraz, hasierako ezinbesteko urratsa eman da ordenantzen onarpenaz, orain aplikazio praktikokoan ikusiko da noraino iristen den.

LIBRERIA-PAPELERIA



LIBURUDENDA-PAPERDENDA

Helbide
berria
Zapatería, 3



**Harira**

Irriherri, hamaika herri, irri bat

5.014 biztanle, 40 herri, 7 udalerrri, euskara elkarte bat: Irriherri

Sorrera

Orain bi urte aurkeztu zen Irriherri euskara elkarte. Jakina denez hamaika hitzak bi erranahi baditu euskaraz: kopuru zehatz bat izan daiteke, hamarren ondolik eta hamabiren atzetik, edo, bertzenaz, "anitz" erran gura luke. Gatozen harira baina, "Irriherri, hamaika herri", herriak zehazki 40 ditugu, 7 udalerritan sakabanututako 5.014 biztanle: Abartzuza, Lezaun, Oteitza, Jaitz, Villatuerta, Gesalatz eta Deierri.

Erran bezala, Elkarte 2011ko apirilean sortu zen baina aurreko urteen lanaren ondorio izan zen ere, lehendik euskara sustatzeko jardunean baitzebilten talde bat; Irriherri lan hori publikoagoa eta formalagoa egin zuen. Talde horrek urtero antolatzen zuen bertako euskararen eguna, gure hizkuntza bultzatzeko baina, urtean behin jaia antolatzearekin nahikoa ez zelakoan, Elkarte osatzeari ekin zitzaion. Horrela, Irantzuko Mankomunitateko herrietako euskaldun eta euskaltzaleen elkargunea bilakatzeko asmoarekin jaiotzen eta honekin batera euskara zein antzinako kultura sustatzeko helburuarekin.

Bazkideak

Euskaltzaleen sarea zabaltzeko eta Irriherriren lana laguntzeko, bazkidetzeko aukera ematen du Elkarteak.

Horrela, gaur egun 101 lagun dira eta urtero 5 euroko saria ordaintzen dute. Kide egitera animatzen bazara jo Irriherriren helbide elektronikora:

irriherri@gmail.com

Jarduerak

Hamaika badira ere herriak eta hauen gogoak, urte hauetako erronkak ez dira gutxiago izan. Dena den, eta zailtasunak zailtasun, jarduera anitz antolatzeak indarra erakutsi dute. Hala, bertzeren artean, zuhaitzaren eguna, Korrika ekimen ezberdinak, Villatuertako ludoeteka, bloga, Olentzeroren gutuna, birziklapen jardunaldia, hitzaldiak, euskararen eguna... Jarduera guzti hauek herri ezberdinetan egiten dira eragina txoko guztietara zabaltzeko asmoz.

Euskararen eguna dugu eskualdeko euskaldunen egunik kuttunena, aurten 8. aldian da antolatzen dena. Urtero jaia udalerrri batetik bertzerera aldatzen da eta aurtengo urrian izanen dugu Oteitzaren txanda. Egun berezia izanen da, jai honek lehendabiziko aldiz errepikatuko baitu herria, jada eskualdea osatzen duten 7 udalerriek izan baitute honetaz gozatzeko aukera. Zorionak beraz!

*Euskararen eguna
dugu egunik
kuttunena...*





“Irakurri, gozatu eta oparitu” bueltan dugu

Azken bost urteotan legez, berriro martxan dugu Topaguneak (Euskara Elkartearen Federazioak) eta Gareanek antolatutako ekimena. Lizarrako liburutegi, liburudenda, Udaleko euskara batzordea eta AEK zein Mintzakiderekin elkarlanean, irakurzaletasuna eta euskarazko produktuen kontsumoa bultzatzeko kanpaina abian da berriz.

Bostgarren urtean gauden honetan momentu egokia izan ahal da atzera begira jartzeko. Horrela, urtero ekimenak irauten duen bi hilabete pasatxoan, 436 euskarazko liburu irakurri dira bederen Lizarrako liburutegian (109 liburu urtean), eta 313 saldu liburu dendetan (78 liburu urtean). Zinez emaitza politak.

Atzera begira baino, jar gaitezen gaurko egunari so egiten. Horrela, ekaina bukatu bitarte irakurtzeko grina pizten bazaizu, erraz aski duzu IGO-n parte hartzea:

- Hartu euskarazko liburu bat Lizarrako Liburutegi Publikotik eta **gozatu irakurtzen**. Bukatutakoan, itzuli liburutegira. Han bertan, hiru galdera erraz dituen fitxa bete eta erosketa txeki bat emanen ditzute.
- Ondotik, Lizarrako liburu dendetan euskarazko edozein liburu eros dezakezu %25eko beherapenarekin (Gareankide bazara %50).
- Azkenik, nahi eran **oparitu liburua**: lagun bati, zeure buruari, senide bati...

Honetaz gain, irakurzaletasuna saritzeko asmoz, maiatza eta ekainaren erdialdera, liburuaren fitxatxo hil horretan bete dutenen artean, **50€ko erosketa-txekeak** zozketatuko dira.

“Irakurri, Gozatu eta Oparitu” kanpainan modu askotan parte har daiteke, norberak bere aldetik irakurketa pertsonalean; liburutegia ezagutzeko euskarazko bisitetan, helduek euskaltegiaren zein Mintzakideren bitartez eta haurrek eskolekin edo gurasoekin; udako atarian gaudela kuadrillan lagun ikustezina egiten; irakurleklubean... Ikusi bezala, era asko ditugu idatzitako hizki eta hitzetan blaitzeko, udari begira proposamen freskagarria!

Aukeratu liburu bat zure herriko Udal Liburutegian, eraman etxera maileguan, irakurri gozatu eta itzultutakoan beste liburu bat erosi eta gozatzen jarraitzeko % 25 edo % 50eko balioa duen erosketa-txeke lortuko duzu.

Apirilaren 23tik ekainaren 30era

www.topagunea.org/irakurri

Antolatzaileak: Topagunea, Babaeak, Loguntzaileak: Susa, ekar, HAZELA

TOPAGUNEA: ARIZPA (Bidaia) • BUI ENAN (Gureak) • BIZKARRI (Gurea) • BIZKAL BUREA (Gurea) • BIZKARARUA (Gurea) • GABARRI (Gurea) • GORRIBO EUSKAL ESKOLA (Gurea) • IZURZU (Gurea) • LAN IVIN BUREA (Gurea) • LARRENKO IZAL LIBURUTEGIA • MALKATAIN (Gurea) • MURKONDO (Gurea) • TERBIOLA (Gurea) • ZOKOLETARI (Gurea)



Foto-inkesta

Musikaz, euskal musikaz eta Oskorritz

Maiatzean Lizarrara Oskorri etortzeko delako aitzakia harturik atera gara karrikara gure fotoinkesta hau egitera, euskal musikari eta Oskorri buruz bururatu zaizkigun galdera erraz batzuk egitera:

1. Zein da erosi zenuen azken CD-a? Musika ordaindu behar da ala dohainik lortu?
2. Zein da zure euskal abeslari edo talde mitikoa? Eta erdaraz?
3. Oskorriren abesti kuttunena edo gustukoena?



Ruben Tudela

1. Hainbeste denbora pasa denez, ez dut gogoan. Baina ongi pentsatu ondoren, haurrei erositako Pirritx eta Porrotxenaz gain, neuretzat Bizardunak taldearena izan zen, orain dela bi urte edo, eta umei ere gustatu zitzaion. Nik uste dut musika ordaindu behar dela, baina bere neurrian, artistaren lana ordaindu behar da. Beste kontu bat da enpresarietara eragiten dutena...

2. Talde asko gustatu izan zaizkit euskal musikan, nire gazte garaian agian Su ta Gar aipagarrienetako bat, gehien jarraitu nuelako. Gero, helduago izanik, lasaiagoak, Itoiz... Atzerriko musika ez nuen asko entzuten, gazteleraz behar bada zerbait gehiago, Celtas cortos...

3. Oskorriren abesti guztiak gustatzen zaizkit alaiak iruditzen zaizkidalako, bat aipatzeko "Forjarien kanta". Beste bat "Tirauki"; gainera, ez nago ziur, baina norbaitek esan zidan abesti horren musika Nafarroa-koa zela, Imozkoa.



Maite Undiano

1. Azken CD-a Ruper Ordorikaren "Dabilen harria". Musika nolabait ordaindu behar da, musikarietara eragiten duen bizi behar dute. Interneten pdf aldizkariak irakurtzeagatik ordaintzen den gisan musikaz ere bizi ahal izateko berdin.

2. Mikel Laboa, berezia delako eta oso barrura iristen delako. Atzerrikoari dagokionez azkenaldian berreskuratu dudana bat aipatuko dut, Beatles, ingelera ahoskatzeko erari erreparatzen diot, irakasle naizen aldetik.

3. "Ostatuko neskatxaren koplak", oso-oso polita delako.



Toño Etxarri

1. Azken CD-a? Joan den ostiralean bertan, Capoeira musika, nire semeak entzuteko erosi nuen, horretan dabilelako. Ordaindu ala ordaindu ez, nik uste dut bi gauzak direla posible, hau da, ordaindu behar da baina ez hainbeste, autoreak bere lanetatik bizi nahi du. Inguruko jendeak, bitartekariak, diskaetxea, errepresentanteak... asko garestitzen dute. Horrez gain bada zenbait musikari lana internet-en dohainik eskaintzen dutenak, musika zabaltzeko eta ezagutarazteko, eta gero dirua kontzertuetan irabazten dute.

2. Nire gusturako Oskorri eta Benito Lertxundi, oso klasikoa naiz. Atzerrikoa? Egia esan musika mota guztiak atsegin zaizkit, ez dut talde jakin bat jarraitu. Dire Straits, saltsa musika dantzatzeko...

3. "Mari Xan kanta zan", azkenaldian haurrekin entzuten dugulako.



Josefina Otegi

1. Orain dela lau urte, Benito Lertxundiren CD bat. Musika ez zait iruditzen dohainik izan behar duenik, musikarietara eragiten duen bizi behar dute.

2. Euskal musikan Benito Lertxundi dut oso gogoko, eta erdal musikan Simon & Garfunkel, Beatles...

3. "Forjarien kanta", "Euskal Herrian euskaraz", "Violetaren martxa"... Bazkalosteko abestiak dira, Oskorriren kontzerturen batean ere izan naiz, eta euskaltegian erabiltzen genuen abestia "Furra furra", horrekin ikasten genuen.



KATXETAS
Taberna

Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010






denborapasak



Gurutzegramak



Oskorri

Goitik behera

- 1. Barakaldokoa naiz eta daukat paro...
- 2. Alemanian...
- 6. Sardina buru baino hobe duk...

Ezker eskuin

- 3. Natxo de ...
- 4. Lastozko...
- 5. Ostatuko neskatxaren ...
- 7. Jakintsuenak ere ezin du ...
- 8. Marixan...

Euskalglofoa

Oskorrik Gabriel...



Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
 Bisita gidatuak
 Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA
 info@lezaun.com - www.lezaun.com
 Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

Masajista diplomaduna
 Goi mailako kosmetika
 Aurpegiko eta gorputzeko tratamendu berriak

Mirari
 centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella
 t. 948 554 001

www.centromirari.com